

TEMOSO BIEN EZKONTZEA



I

Ibilli nintzala ni baten ezteguan,
 Ogei urte irano dira zapatuan;
 Noz zirean temoso pirri bi ezkondu,
 Ezin ziranak gero ezelan konpondu;
 Nai ebelako beti biak izan nausi,
 Eche atan bakerik iñoz etzan bizi;
 Ebiltzan beti beti kiskan, ez eta bai,
 Bakochak ebalako bereaz urten nai;
 Augaitik deitzen eutsen Praiskari, berekor,
 Praiskori erri danak barriz buru-dekor;
 Nori arratserako berotzen odolak,
 Bajakozan ziertu ziran teniolak.

¿Nok esan Praisko ala Praiska zan obia?
 Diñot, biak eukela beti errazoia;
 Diñot, nik nekusala Praisko gizartean,
 Beti gogor zaillduten berak esanean;
 Praiska ezdazaut ondo, baña bere ama,
 Diñot, suge-izpia duiñ zorrotza dala;
 Bakit barriz billdurrez bizi zala Praisko,
 Burua ete eutsan Praiskari ausiko;
 Ta aiñ arri labanean jarraitzea baño,
 Desezkontzea zala pentsaurik obago,
 Praiskari zer asmetan eban esan eutsan,
 Eta bananduteko au bere poztu zan.

Ze laster Praisko joan Abadeagana,

Egin zan jakitera zer zirautzan bada;
 Zeiñek erantzun eutsan gacha izan arren,
 Ebazala askatuko, biak gura beben;
 Atarako Eleiñan biaramonean,
 Agertzeko zazpirak joten ebenean.

II

Eleisaratu ziran zazpiren *drangadan*,
 Ta aurrez abadea egoan altaran;
 Jantzita bear legez prest bere lekuan,
 Burdiñazko isopo bategaz eskuan;
 Noren aurrean ziran ezkondamutuak,
 Belaunikotu makur jarririk buruak;
 Ta Aitearen eginda danak bereala,
 Gauzeak urten eyan ondo ta erara;
 Abadea asi zan iñillik esanaz,
 Lantzean beñ berba bat, baña ez euskaraz;
 Eta nozik nozera isopo gogorraz,
 Joaken koskorreko ederrak emonaz;
 Bostgarren burukoan Praiskak eban negar,
 Baña, Praiskok amorru ta arrabioz dedar.

—On Luis, guk onetara banandu ezeze,
 Laster galduko dogu bizitzea bere;
 Isopokadak artzen ¿noz artean jauna
 Eukiko gaitu emen, naikoa ez alda?

Irri barrez diñotsa;—ezto gu naikoa,
 Benturaz lan au dogu aste guztikoa,
 ¿Ez aldakizu Praisko desezkondutea,
 Dala bietatik bat alargundutza?
 Zuen buruak illun dotriña bagarik,
 Dagoz ta bear ditut jarri argiturik;
 Banandu ezetara ezin zaikiet nik,
 Bat edo besteori ichi arte illik;
 —¡Ola! ezteusku gichi jauna eskatuten,
 Ori jakin bagendu ona ezkentozen;
 Errazoia eukan bai, erremediua,
 Zala gacha, gañera barriz kostosua;

Jagi Praiska, ta goazen, ill baño lenago,
Ill ezkeru guztia amaitua dago,
Burruka eta abar obe dogu bizi,
Ez benturaz biziak biok emen ichi...

Kar kar kar abadea, ichirik barreka,
Eurak bostna burukoz miñez ayeneka;
Seigarren bana laster arrapau baño len,
Eleisatik chimistaz biak urten eben;
Eta kale guztia lotsari artean,
Iragota sartzean euren suetean,
Asi zirean laster sendatzen buruak,
Abadeak mallatu eta argituak.

Bai, mallatuagaitik eutsezan argitu,
Bestelan gaur dayegun eurai begiratu:
Len beti gerran bizi baziran echean,
Bizi direalako gaur oso bakean;
Ain bestean ein dabez jenioak ondu,
Alan eztabe gura orain desezkondu.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

